

***Tabakorik gabeko Mundu Egunerako*** kartel lehiaketa (marraskia eta pintura), Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak Hezkuntza Departamentuarekin batera deitzen duena.

#### **HELBURUA**

Tabakoaren kalteak direla eta, gazteak sentsibilizatzea eta kontsumoa prebenitzea.

#### **KATEGORIA**

Bi kategoria daude:

- Lehen Hezkuntza
- DBH eta Batxilergoa

#### **GAIA**

Lehiakide bakoitzak kartel bat egin beharko du, barrenean testu hau idatzirik: ***Día Mundial sin Tabaco/Tabakorik gabeko Mundu Eguna***.

#### **EPEA**

Eskaerak aurkezteko epea **2013ko maiatzaren 23an amaituko da (egun hori barne)**.

#### **AURKEZPENA**

Kartelak A3 tamainan eta JPG formatuan egin behar dira. Gehienez ere 6 Mb-ko pisua izanen dute. Helbide elektronikoz [ispdirec@navarra.es](mailto:ispdirec@navarra.es) buzoira bidali behar dira, mezuan, gai gisara, "Tabakorik gabeko mundu egunerako lehiaketa" jarrita.

Parte-hartzailearen datu hauek eman behar dira:

- Izena eta bi abizen
- Adina
- Ikasmaila
- Ikastetxea

#### **EPAIMAHAIA**

Honako hauek ariko dira epaile lanean: Odontologoek Elkargoko kide bat, Sendagileen Elkargoko kide bat, SEMFYC espainiar elkarteko 2 kide (PAPPS eta CNPT), Hezkuntza Departamentuko kide bat eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko kide bat.

#### **EPAIA**

Epaimahaiaren erabakia jendaurreko ekitaldi batean jakinaraziko da 2013ko maiatzaren 31n.

## **SARIAK**

Sari bera jasoko da bi kategorietan:

- **Taldeko saria:** ikasle irabazlearen ikastalde osoaren ateraldia Rocópolis zentrora, bertan 2 orduz aritzeko eskalatzen eta abentura parkean.
- **Bakarkako saria:** 60 €-ko txartela, kirol arropa erosteko.

Sarien banaketa 2013ko maiatzaren 31n egingen da, 11:00etan, ***Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak Leire kaleko 15ean duen Aretoan***, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuko kontseilaria ere bertan izanik, eta interesdunei behar den denborarekin jakinaraziko zaie.